

ERRALDOIAK

Euskal Herriko konpartsak ilusioz itzuli dira kale giroa sustatzen jarraitzeko

Aurreko bi urte-
etan izandako
eragozpen guz-
tien ondoren,
aurtengo udan
Euskal Herriko
jai eta festek ohiko itxura be-
rreskuratu dute. Eta progra-
mazio horietan ezin falta
erraldoi eta buruhandiak. Na-
farroan tradizio handia izan
arren, beste herrialdeetan na-
barmena da urte gutxian in-
dar handia hartu dutela erral-
doiek eta itzulera honetan ere
argi geratu da hori.

Azpeitian, esaterako, uztaila-
ren 24an berreskuratu zuten
bertako erraldoien topaketa
arrakastatsua, bi urtez ospatu
ezinik geratu ostean. Eta hi-

 **JAIK /** Asier Aiestaran

Bi urtez euren habitat naturala den kalean lasai ibili ezinik
egon ostean, erraldoi eta buruhandiak bueltan dira
herrietako jaiekin batera. Konpartsetako kideek aipatu
digutenez, «desentrenatuta» baina «pozik» daude.

tzordua baliatu genuen kon-
partsa desberdinekin hitz egin
eta itzulera hau zer moduz da-
ramaten galdetzeko.

«Lehen sentimendua pozta-
suna litzateke», dio Gotzon Ar-
zelusek, Bergarako Erraldoi
Taldeko kideak. «Eskari pila
bat jasotzen ari gara, eta ez ga-

Azpeitiko topaketan egin
zen taldekako dantza
txapelketaren une bat.
Txantreako konpartsak
irabazi zuen. Jon URBE |
FOKU

ra bakarrak. Beste konpartsa
batzuekin hitz egiten dugune-
an ikusten dugu denok gabil-
tzala topera. Herriak hasi dira
erraldoiei merezi duten lekua
eta arreta eskaintzen. Nafarro-
an beti egon da tradizioa baina
Euskal Herriko beste herrial-
deetan, nahiz eta beti egon

den talderen bat edo beste,
ikusten da dena suspertzen
dabilela. Ikusi besterik ez dago
zenbat talde, zenbat familia,
zenbat jende bildu den gaur
hemen, zer kale giro sortzen
den. Gaitak edo dultzainak en-
tzutea... poza da hitza», gaine-
ratu du.

Arzelusek erraldoiek txikie-
nen artean sortzen duten lilu-
ra nabarmentzen du, eta pan-
demiak egoera kurioa ekarri
duela, haur askok telebistan
ezagutu dituztelako kalean
baino lehenago. «Bergaran ur-
teurrenako erakusketa bat
egin genuen gure ibilbidea
errepasatzeko, eta juxtu pan-
demia egokitu zen. Pandemia
amaitutakoan erraldoi batzuk



jarri genituen areto batean eta kurioa zen: haur txikiek sekulako grina zuten erraldoiekiko, baina beti tabletan edo ordenagailuan ikusita. Eta kasu askotan lehen aldian ziren aurrez aurre erraldoi bat ikusten zutela. Noski, geratzen ziren ahoa eta begiak zabal-zabalik zituztela, zer handiak ziren jaketuz. Zaila da esatea zer duten horrelako lilura sortzeko, baina ikusi besterik ez dago hurrek nola gozatzen duten».

Erraldoien panpinek ere arrakasta handia izan dute azken urteotan, kalean asko ikusten dira eta haur askoren ohiko jostailu bilakatu dira. Horren harira, Gotzon Arzelusek anekdota polita kontatzen du: «Gogoratzen naiz behin nola gure kalejira hasi eta atzetik pare bat hurrek jarraitzen ziguten panpinak buru gainean jarri eta beraiek ere gurekin batera dantza eginez. Horrelako gertaerek asko betetzen zaituzte».



DANTZA TALDEA ABIAPUNTU

2000. urtean sortu zen Bergarako Erraldoi Taldea, Arzelusek azaldu digunez. «Bergarako dantza taldea nolabait desagertu eta ondoren sortu zen gure taldea, jende hura izan zen bultzatzaile nagusia. Haur, guraso eta kide guztiak kontuan hartuta 100 bat lagun izango gara gaur egun. Noski, gero zaila da denak biltzea, jendeak bere zereginak dituelako. Gu jada apur bat 'kaskatuta' gaude, baina ume pilo bat ditugu atzetik eta erreleboa garrantzitsua da. Gure estrategia hori da, mailakako figurak egin umeak hazten joan ahala egokitzen joateko».

Dioenez, uda oso potentzia izaten ari da. «Azkenean lagun talde bat gara, eta zure arlo pertsonala ere kontuan hartu

behar duzu, oreka bat mantendu behar da. Gonbidapen askori ezetz esan behar izan diegu», dio. Baina hala ere gogotik saiatzen dira ahalik eta leku gehienetara iristen. «Urtero kanpora joaten gara. Aurten, urtarrilean Katalunian izan ginen, Castellbisbal herrian. Urtero saiatzen gara irteeraren bat egiten, eta hemen inguruan ere gelditu gabe. Bihar Mendarora goaz, Bilboko Aste Nagusian izango gara, Durangon...».

Eta aipatu digunez, beraien erronka nagusia taldean emakumeen parte-hartzea handitzea omen da: «Aipatutako dantza taldea gizonezkoena zen, eta gainera erraldoi pisutsuak dauzkagu. Orain hasi dira neska batzuk eta ama ba-

Konpartsa desberdinetako erraldoiak Azpeitiko plazan.
Jon URBE | FOKU

tzuk erraldora sartzen eta ea kapaz garen neskak ere engantxatzeko». Izan ere, ezin da ahaztu erraldoiak dantzatzeko exijentzia fisiko handia duela. «Figura mota asko daude, eta segun eta zer oinarri eta zer egitura daukaten asko aldatzen da. Gure figurek 40 eta 50 kilo artean pisatzen dute. Gauza bat da altxatzea, eta bestea horrekin dantzan egitea, oreka mantentzea eta abar. Indar apur bat behar da».

Azkenik, Arzelusek musikari lan nabarmendu nahi izan du, gutxiegi aipatzen baita. «Musikari gabe erraldoi bat ez da ia ezer. Kalean bat-batean musika hasten denean ikusten duzu jendearen aurpegietan irribarre bat sortzen dela. Horregatik, guretzat ezinbesteko

osagaia da dultzaineroen edo gaiteroen laguntza».

KOLPETIK FAMATU LEKU ASKOTAN

Julen Aldaz, Txantreako Erraldoien Konpartsako kideak ere aurtengo udan izan duten eskaera nabarmen du. «Bi urte generamatzen ekitaldiak auditoriumetan eta horrelako lekuetan bakarrik egiten, 'Ene Kantak'-ekin eta baita gure emanaldi propioak egiten ere. Eta aurten itzuli gara kaleetara. Nabaritu da eskaera handia dela. Ez gara gelditu uda hasi zenetik, leku batetik bestera gabiltza gelditu gabe, leku guztietatik deitzen digute. Nabaritzen da bi urtez ezin izan dela ezer antolatu eta orain udal guztiak gauzak antolatze gogoz dabilta», dio.



Hala ere, Aldazek ez du uste erraldioen eskaeran eta arrakastan aldaketa handirik egon denik azken urteetan. «Nafarroan beti egon da erraldoi tradizio handia. Alde horretatik ez nuke esango aldaketa handirik egon denik. Egia da Gipuzkoa aldean azken urteotan udal desberdin gehiagotatik deitzen gaituztela. Lehen gure emanaldiak Nafarroa inguruan izaten ziren batez ere, baina orain Gipuzkoa eta Bizkaian nabaritu dugu emanaldi gehiago ditugula».

Nabaritu duena, hori bai, bi urteko etenak sortutako entrenamendu falta izan da. «Berriz ere ohitu behar dugu martxa honetara. Ez da agian pandemia aurretik egiten genituen emanaldi kopurutik asko igo, baina bi urteren buruan motorrak berriz martxan jartzen ari gara», dio irribarrez. Baina ez da horrenbesterako izango, Azpeitiko lehiaketan taldekako saria irabazi zutelako. «Juxtu aurten ez genuen espero», gehitu du pozarren.

Txantreako Erraldioen Konpartsa 1984an sortu zen. Historia luzea dute, beraz, baina «Tartalo», «Sorgiñe», «Basajaun» eta «Mari» beren erraldoiak oso famatuak egin dira azken

urteotan Euskal Herri osoko gaztetxoan artean, besteak beste, «Ene Kantak»-ekin egin dituzten bira eta bideoklip desberdinen bitartez. «Zazpi edo zortzi urte daramatzagu 'Ene Kantak'-ekin elkarlanean. Urtero biratxo bat egiten dugu hiriburuetan emanaldi berriekin eta oso pozik joaten gara», aipatu digu Aldazek.

Eta dirudienez, hemen ere erreleboa ziurtatuta daukate: «Oraintxe bertan 25 bat pertsona egongo gara erraldoi handiekin, eta beste horrenbeste txikiekin, gutxi gorabehera. Gure helduen taldean daudenak ia denak erraldoi txikietatik datoz. Azken urteetan jada handietara iristen diren kide guztiak txikietatik pasatuta datoz».

BIZKAIA ERE BAI

Bizkaira begira jarritz, Urduñako Bihotza Konpartsa izan daiteke herrialdean tradizio gehien izan duenetako bat. Niko Sanz konpartsakideak azaldu digu beraien historia: «Oraintxe bertan 20 bat pertsona izango gara. 2001. urtean sortu zen konpartsa eta gero eta erraldoi bikote gehiago dauzkagu. Gure konpartsaren gaia dantzariena da: makil

Ezkerrean, Txantreako erraldoiak aurrean eta Urduñakoak atzean, Azpeitian egindako topaketan. Eskuinean, Bergarako Erraldoi Taldeko kide gazteak itzaletan eserita.
Jon URBE | FOKU

dantza eta antzerako dantzari tipikoak dauzkagu. Urduñan beste erraldoi batzuk ere dantzatzeko ditugu, Udalekoak adibidez. Azken urteotan gure aktibitatea gero eta handiagoa da eta leku desberdin askotara joan izan gara: Kataluniara, Bizkaian ia herri guztietara, eta Euskal Herriko beste txoko askotara ere bai».

Inguruan erraldoiekiko interes handiagoa nabaritzen duen galdetuta, Nikok ere pandemia garaian txikienek pantaila bidez izan duten ezagutza aipatzen du batez ere. «Urduñan bai antzeman dugu txikien artean grina handiagoa. Pandemia garaian seguru asko erraldoiak pantailetan ikusi dituzte eta orain lehen aldiz ikusten dituzte bertatik bertara. Interes handiagoa dago agian txikien artean. Eta

noski, azkenean gurasoak ere haiekin batera etortzen dira».

Eta txikienek erakusten duten zaletasun horri heldu nahi diote etorkizuna ziurtatzeko. «Horrelako ohitura edo tradizio bat mantentzeko jendea behar da. Hemen bertan, Azpeitian, urte batzuk egon ziren dantzatzeko jenderik gabe eta gero konpartsa bat sortu zen. Guk ez dugu hori nahi, ez genuke nahi Urduñan ohitura hau galtzea. Guk berreskuratu genituen bere garaian antzinarako erraldoi horiek eta horiekin segitu nahi dugu».

Horregatik, eta batzuetan gogorra egin arren, ilusioz hartu dute Urduñan ere erraldoiekin kalera itzultzeko aukera: «Tenperatura altuak izan ditugu aurtengo udan eta exigentzia fisikoa handia da. Fisikoki asko eman behar dugu. Baina pandemiaren ostean ari gara berriz ere pixkanaka ohi-tzen. Badakigu beroa egingo duela, baina pozik egingo dugu esfortzua».

Noski, Ipar Euskal Herrian eta Araban ere badira erraldoiak, baina oraingoz beste herrialdeetan baino gutxiexa go ikusten dira. Hori bai, duten arrakastarekin, ziur leku gehiagotara hedatuko direla.

«Eskari pila bat jasotzen ari gara, eta ez gara bakarrak. Beste konpartsekin hitz eginda ikusten da denok gabiltzala topera», dio Gotzon Arzelus Bergarako Erraldoi Taldeko kideak

«Lehen gure emanaldiak Nafarroan izaten ziren batez ere, baina orain Gipuzkoan eta Bizkaian emanaldi gehiago ditugu», aipatu du Julen Aldaz Txantreako konpartsakideak